

Edukia

BILBOKO AUTO-TAXI ZERBITZURAKO IBILGAILU BERRIAK EGOKITZEKO DIRULAGUNTZETARAKO DEIALDIA 2025 2

1. ARTIKULUA. XEDEA.....	2
2. ARTIKULUA. ERREGIMEN JURIDIKOA.....	2
3. ARTIKULUA. ONURADUNAK	2
4. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK.....	3
5. ARTIKULUA. AURREKONTU KREDITUAK.....	3
6. ARTIKULUA. LAGUNTZA EKONOMIKOAK	4
7. ARTIKULUA. BATERAGARRITASUNA BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIN.....	4
8. ARTIKULUA. ESKABIDEAK	4
9. ARTIKULUA. LAGUNTZAK EMATEKO ETA EBAZTEKO PROZEDURA.....	6
10. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA.....	7
11. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK.....	7
12. ARTIKULUA. OBLIGAZIOAK EZ BETETZEAREN ONDORIOZKO ERANTZUKIZUNAK	7
13. ARTIKULUA. EMANDAKO DIRU LAGUNTZEN PUBLIZITATEA	7

BILBOKO AUTO-TAXI ZERBITZURAKO IBILGAILU BERRIAK EGOKITZEKO DIRULAGUNTZETARAKO DEIALDIA 2024

1. ARTIKULUA. XEDEA

Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailak, Garraioak esparruaren barruan, "Bilboko autotaxi zerbitzurako ibilgailu berriak egokitzeko" dirulaguntza ildorako deialdia egin du.

Honakoa da deialdiaren xedea: ibilgailu berri bat, lehenengo matrikulazioa duena, egokitzeko inbertsioa diruz laguntzea, baldin eta inbertsio horren bitartez ibilgailu hori mugikortasun urriko pertsonak garraiatzeko egokia bada eta Bilboko taxi zerbitzuan taxi egokitu gisa sartzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzen baditu, 1544/2007 Errege Dekretuaren IV. eranskinean ezarritakoarekin bat etorrita, non ezgaitasunen bat duten pertsonak garraio moduetara iritsi eta horiek erabiltzeko behar dituzten oinarriko irisgarritasun eta bereizkeria ezeko baldintzak onesten diren.

2. ARTIKULUA. ERREGIMEN JURIDIKOA

Deialdi honetako dirulaguntzak honako hauexen arabera arautuko dira: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; lege hori garatzeko asmoz uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako araudia; eta Bilboko Udalak eta bertako zuzenbide publikoko erakunde eta organismoek deitutako dirulaguntzak esleitzeko asmoz 2016ko ekainaren 30ean udalbatzak hartutako erabakipeko ordenantza orokorraren bidez onartutako eta 2016ko uztailaren 20ko 138. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako oinarri arautzaileak.

3. ARTIKULUA. ONURADUNAK

Bilboko Udalaren auto-taxi lizentzia baten titular diren pertsonak, Prozeduraren 9. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita, baldin eta:

- a) Zerbitzuan jarri badute ibilgailu egokitu bat 2024. edo 2025. urtean.
- b) Kontzeptu honengatik beste udal diru-laguntzarik jaso ez badute.
- c) Zerbitzuan jarri badute ibilgailu egokitu bat 2024. urtean

- d) Taxiak derrigorrez egin beharreko udal-ikuskapenak egin baditu.
- e) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua 2. eta 3. paragrafoetan ezarritako debekurik ez badu.

4. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Dirulaguntzen onuradunek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 14. artikuluan zehaztutako betebeharrak bete beharko dituzte.

Bereziki, zergak ordaintzen dituztela eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioak betetzen dituztela.

Ez da dirulaguntzaren ordainketa gauzatuko, baldin eta hura izapidetzeko datan egunean ez badago aipatutako betebehar horiekin.

Gainera, betebehar hauek ere bete beharko dituzte:

- Gutxienez 4 (lau) urtez eduki beharko dute ibilgailu egokitua Bilboko taxi zerbitzuaren barruan, atxiki direnetik zenbatzen hasita. Gutxieneke epe hori amaitu aurretik kentzen bada ibilgailua zerbitzutik, Udalari itzuli beharko dio aurreko paragrafoan zehaztutako gutxieneke epea bete bitarteko zati proportzionala, salbuetsita gelditzen delarik automobilaren transmisioa Bilboko beste taxi baimen baten titular bati egiten bazaio eta automobilak zerbitzua ematen jarraituko badu gutxieneke epe hori bete bitartean.

- Era berean, mugikortasun elektrikoari buruzko ikastaro, prestakuntza eta ekitaldietara joan beharko dute, Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailak hala eskatzen badiete.

Aurreko baldintzak ez betetzeak ekar dezake onuradunak laguntzaren zati proportzionala (ez betetzearen eta aipatu ibilgailu egokituaren iraupen-epearen artekoa) itzuli beharra.

5. ARTIKULUA. AURREKONTU KREDITUAK

1.- Deialdiko dirulaguntzak Bilboko Udalak 2025ko ekitaldirako onartutako aurrekontuaren partida 2025 21010 44110 7719900, PEP 2025/00267 partidaren kargura finantzatzeko dira.

2.- Deialdi honetarako zenbatekoa HIRUROGEI MILA (60.000) eurokoa izango da.

3.- Diru-kopuru hori amaitutakoan, ez da laguntza gehiago emango harik eta aurrekontuan beste dotazio bat baimendu arte. Hori Bilboko Udalaren webgunean argitaratuko da.

4.- Aurrekontuko dotazioa handitu egin daiteke, aurkeztutako eskabideak ikusita, beste deialdirik egin barik.

6. ARTIKULUA. LAGUNTZA EKONOMIKOAK

1.- Laguntza honen zenbatekoa egokitzapenaren kostua izango da, gehienekoa hamar mila (10.000) euro izanik eskaera bakoitzeko.

7. ARTIKULUA. BATERAGARRITASUNA BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIN

1. Dirulaguntza hauek bateragarriak dira helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin, edozein dela ere horiek ematen dituen Administrazioa edo erakunde publiko edo pribatua, nazionala, Europar Batasunekoa edo nazioartekoa.

2. Nolanahi ere, modu isolatuan edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, esleitutako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izango du inolaz ere dirulaguntzaren xedearen kostua gainditu. Beraz, onuradunek Bilboko Udalari jakinarazi behar diote, eta, hala badagokio, itzuli, udalak emandako laguntzaren zatia, baldin eta laguntza horrek, emandako edo emateko dauden beste batzuei gehituta (BEZik gabe), dirulaguntzaren xede den ibilgailuaren egokitzapenaren kostua gainditzen badu.

8. ARTIKULUA. ESKABIDEAK

Deialdi honi buruzko informazio eta dokumentazio guztia eskura egongo da udalaren webgunean (www.bilbao.eus) eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean.

Dirulaguntzak eskuratu nahi dituzten pertsona fisikoek edo juridikoek eskabidea (l. eranskina) aurkeztu behar dute agiri hauekin batera:

- a) Eskatzailearen NANaren fotokopia.
- b) Ibilgailua egokitzearen gastuen faktura.

- c) Ibilgailuaren egokitzapena osorik ordaindu izanaren egiaztagiriak.
- d) II. eranskina beteta eta sinatuta. Erantzukizunpeko adierazpena:
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua onuradun izateko ezartzen dituen debekuetako bat ere ez duela adierazten duena.
 - Oinarri hauetako 7. artikuluan laguntza horien bateragarritasunari buruz dioena ezagutzen duela adierazten duena.
 - Dirulaguntzaren xede den ibilgailua Bilboko auto-taxi zerbitzura gutxienez 4 (lau) urtez atxikitzeko konpromisoa adierazten duena.
 - Zerbitzua ematean mugikortasun murriztua duten pertsonen lehentasuna emango zaiela adierazten duena.
 - Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailak eskatzen dion formazio espezifikoan parte hartu duela adierazten duena.
- e) III. eranskina beteta eta sinatuta: "Hartzekodunen fitxa"
- f) Bankuko kontuaren titulartasuna egiaztatzen duen agiria.
- g) Ibilgailua egokitzearen egokitasun-ziurtagiria, IV. eranskinean jasotako ereduaren antzekoa.
- h) Bilboko Udalak informazio hori eska edo kontsulta dezan nahi ez badu, ziurtagiri hauek aurkeztu behar ditu:
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian ordainketak egunean izatea.
 - Udal eta Foru Ogasunean ordainketak egunean izatea.

2.- Eskaerak Bilboko Udalaren Erregistroan aurkez daitezke, edo, bestela, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako beste edozein eratara.

3.- Eskaerak aurkezteko epea deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunean hasiko da.

Nolanahi ere, eta aurrekonturik dagoen kontuan hartu gabe, eskaerak aurkezteko epea 2025eko irailaren 12an amaituko da. Dirulaguntzen deialdiari buruzko Informazio guztia dago Bilboko Udalaren web-orrian dago: [www.bilbao.eus/ Area de Movilidad y Sostenibilidad](http://www.bilbao.eus/Area_de_Movilidad_y_Sostenibilidad).

9. ARTIKULUA. LAGUNTZAK EMATEKO ETA EBAZTEKO PROZEDURA

1. Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, garaiz eta behar bezala aurkeztutakoei erantzuteko, kontuan hartuko da ibilgailua zerbitzuan jarri den eguna (*):

() Dirulaguntzaren xede den ibilgailua zerbitzuan jartzeko datatzat hartuko da ibilgailua lizentzian sartzeko ikuskapen-aktak duena, aldeko emaitzarekin (Elorrietako ikuskapena).*

2.- Dirulaguntzetarako deialdi honetarako gordetako aurrekontu-kreditua, 6. artikuluan ezarritako laguntzen zenbatekoen arabera banatuko da.

3.- Prozeduraren instrukzioa egiteko organo eskuduna Mugikortasun eta Jasangarritasun Saileko Garraio Zuzendariordetzari atxikitako teknikariak izango dira.

Organo izapidegile horrek ebazpen-proposamena egingo du, honako hauek egiaztatu ondoren:

- Onuradunak eskatu zaion dokumentazio guztia aurkeztu duela.
- Onuraduna egunean dagoela urteko berrikuspen arruntei eta zerbitzua ematearekin lotuta egin zaion beste edozein errekerimendurekin.
- Ibilgailuak zerbitzuan jartzeko aldeko ikuskapen-akten datak.
- Onuradunak egunean dituela tributu-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta ez duela zergaldian inolako zerga-zehapenik edo -zorrik Udal honekin, salbu eta geroratuta edo zatituta badaude edo haien betearazpena etenda badago.

3.- Gobernu Batzarrak edo horrek eskuordetzen duenak ebatziko du prozedura.

Ebazteko eta interesdunei jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik aurrera.

Ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehienezko epea igaro ondoren, eskaera ezetsi ahal izango da, administrazio isiltasuna dela-eta.

Eskatutako dirulaguntza emateko edo ukatzeko ebazpenarekin amaitzen da bide administratiboa.

Horren kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da ebazpena eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean jakinarazpena egiten denetik zenbatzen

hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsua, dagokion administrazioarekiko auzi - epaitegiaren aurrean, bi hilabeteko epean jakinarazpena egiten denetik zenbatzen hasita.

5.- Prozedura izapidetzeko eta ebazteko egintzak banakako jakinarazpenaren bidez jakinaraziko dira.

6.- Deialdi honetan onartu diren dirulaguntzen guztirako zenbatekoa txikiagoa bada dirulaguntza hauetarako izendatutako zenbatekoa baino, soberakina Bilboko auto-taxi zerbitzurako erregai alternatiboak darabiltzaten ibilgailuak erosteko dirulaguntzen deialdiari batuko zaio.

10. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA

Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailaren Ordezkaritzak emango du onartutako dirulaguntza ordaintzeko ebazpena, eta onuradunari jakinaraziko zaio; ordainketa egiteko, Udal honetako Hartzekodunen Erregistroan bere izenean agertzen den kontu korrontean sartuko da dirua. Onuradunari jakinarazi egingo zaio ordaindu izana.

11. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira ibilgailua egokitzeko gastuak, BEZa salbu, baldin eta plataforma bakarraren bidez (ez bikoitza/arranplatxoak) gurpil-aulkiak ibilgailura sartzeko aukera ematen badute, azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorren 31.8 artikuluan adierazitakoaren arabera.

12. ARTIKULUA. OBLIGAZIOAK EZ BETETZEAREN ONDORIOZKO ERANTZUKIZUNAK

Deialdi honetan zehaztutako betebeharrak betetzen ez badira, edo bertan eskatzen diren datuak eta eskakizunak faltsutzen edo ezkutatzen badira, dirulaguntzaren zenbatekoa itzuli beharko da, dagozkion atzerapen interesak barne, dirulaguntza jasotzen den unetik aurrera.

13. ARTIKULUA. EMANDAKO DIRU LAGUNTZEN PUBLIZITATEA

Urtea bukatu aurretik, emandako eta ukatutako dirulaguntza guztiak argitaratuko dira udalaren webgunean.

Era berean, dirulaguntzen publizitatea egingo da Dirulaguntzen Datu-base Nazionalaren bitartez, Dirulaguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera.

Bilbon, 2025eko urtarrilaren 20an
Mugikortasun eta Jasangarritasun Saila.